

**2018ko uztailaren 26an ,UDALBATZAK egindako bilkura arruntaren AKTA. 2**

Aiako Udaletxeko batzar aretoan eta egun honetako arratsaldeko 19,30tan, Udalbatzarra bildu da, Idazkari-kontuhartzailea bertan egonik.

Alkate andreak - Nekane Arrizabalaga - zuzendu du bilera eta bertara ondoko Udalkideak agertu dira:

**ZINEGOTZIAK :** Jon Ander Azpiroz  
Asier Ibarguren  
Igor Iturain  
Sergio Cubero  
Aitor Arregui  
Kontxi Lazkano

Eñaut Guruzeaga,Hodeiza Sallent, Marije Arruabarrena eta Arkaitz Iruretagoiena ez ziren bertaratu.

**Idazkari-Kontuhartzailea: Xabier Osa**

Lehendakari jaunak hala adierazita ekitaldiari hasiera eman eta ondoren azalduko gertatu eta erabaki da:

**1.- Aktaren onarpena**

2018ko apirilaren 25ean, eginiko udalbatzarren akta ,ontzat eman da aho batez.

**2.- 2017. urteko Aurrekontuen Likidazioaren berri eman eta kontu Orokorrak onartu.**

Kontu Orokorrak urtean zehar egin diren aurrekontu eragiketa guztien berri ematen du: aurrekontuarenak, aurrekontu-kanpokoak, ondarezkoak eta diruzaintzakoak.

Udal entitateak aurrekontuaren likidazioaz gain, Kontu Orokorra egitera behartuta dago eta ondoko hauek osatzen dute: Udalarenak eta Aia-Lantzen, S.A. sozietate publikoaren (bere kapital sozialean %50tik gorako partaidetza baitu). Eta ondoko dokumentu hauek izango ditu:

- 1.- Aurrez Alkate dekretuz onartutako Aurrekontuaren likidazioa.
- 2.- Egoera balantzea, ekitaldiaren itxiera egunean Ondarearen Osaera eta Egoera adierazten duena.
- 3.- Galdu-irabazien kontua, ekitaldiaren emaitzak azaltzen dituen, ekonomia eta ondarearen ikuspuntutik.
- 4.- Ekitaldiaren txosten bat, urteko finantzaketa taula eta zorraren egoerarekin.

Aia Lantzen S.A.ren Administrazio Kontseiluak, ekainaren 13an, formulatu ditu 2017 urteko Kontuak .

Bestalde, ekainaren 13an Kontu Orokorretarako Batzorde Bereziak erabaki zuen 2017ko Kontu Orokorri oniritzia eman eta jendaurrean jartzea. Jendaurrean jarri ( BOG ekainaren 21ean ) eta agerraldi epean ez da inolako iradokizunik edo oharpenik aurkeztu.

**Bozkatu eta aldeko 7 boturekin , aho batez, beraz, beharrezko gehiengoarekin, erabaki da:**

**“ 2017ko udal Kontu Orokorrak onartzea”**

### **3.- Eskari-galderak**

Ez da izan , ez eskari ez galderarik.

**Bilera, 19,40tan bukatu da, eta bertan esan eta onartutakoak jasota gera daitezen, Idazkariak hau ematen du, Aian 2018ko uztailaren 26an.**

**IDAZKARI -KONTUHARTZAILEAK**